


berde-berdea



OPORRALDI EKOLOGIKOAGOAK

IKASLEAREN
GALDERAK



gizarte ekintza

OPORRALDI! EKOLOGIKOAGOAK

Oporraldi ekologikoagoak : Galderak

1. Zure ustean, noiz bihurtu dira ohikoak bidaia edo oporrak?
 - ☐ O. XIX. mendean.
 - ☐ O. XX. mende hasieran.
 - ☐ O. XX. mende bukaeran.
2. Hauetako zein eraikin lotuko zenuke turismoaren hasierarekin?
 - ☐ O. Donostiako Kursaleko Kuboak.
 - ☐ O. Donostiako Udaletxea.
 - ☐ O. Guggenheim Museoa.
3. Baieztapen hauen artean zeini deritzozu egokien?
 - ☐ O. la mundu guztia doa oporretara noizean behin.
 - ☐ O. Jendearen erdia, gutxienez, doa oporretara.
 - ☐ O. Biztanleen %10 doa oporretara atzerriara.
4. Queen Mary itsasontziak, sekula izan den bidaiari-itsasontzirik handien eta dotoreenak, 3.500 pertsona eraman ditzake. Ba al dakizu zenbat energia kontsumitzen duen?
 - ☐ O. 20.000 bizilaguneko hiri batek adina.
 - ☐ O. 75.000 bizilaguneko hiri batek beste.
 - ☐ O. 200.000 bizilaguneko hiri batek adina.
5. Zenbat denbora behar ote du mendian botatako plastikoak degradatzeko?
 - ☐ O. Urtebete.
 - ☐ O. 10 urte.
 - ☐ O. 100 urtetik gora.
6. Itsasoan ere ohikoa da gizakiak jaurtiriko plastikoa egotea, eta arrainek irenstea, jakina. Ba al dakizu, baina, zein itsas espezieren barrenean aurkitu den gehien?
 - ☐ O. Balea batean.
 - ☐ O. Dortoka batean.
 - ☐ O. Arrain batzuetan.
7. Zenbat ur gastatzen dugu opor egun batean, esaterako, Benidormen?
(Oharra: Euskadin, batez beste, 147 litro)
 - ☐ O. 100 litro.
 - ☐ O. 250 litro.
 - ☐ O. 400 litro.

Oporraldi ekologikoagoak : Galderak

8. Bazen, halere, turistek duela gutxi arte zapaldu gabeko lekurik. Zein?
- ☐ O. Kanarietako gailurra, Teideko sumendi ahoan.
 - ☐ O. Khumbuko glaziarra, Everest mendiaren hegoaldean.
 - ☐ O. Antartida.
9. Mediterraneoko zenbait hoteletan, ohikoa den bezala eskuoihalak egunero aldatu ordez, noizean behin bakarrik aldatzen dizkiete hori onartzen duten bezeroei. Zergatik ote da?
- ☐ O. Garbitegiko lana merkeago ateratzen zaielako.
 - ☐ O. Eskuoihalen eguneroko lapurreta eragozteko.
 - ☐ O. Ura eta energia aurreztearren.
10. Turismo arduratsua lortzeko, zein ote da lehen pausoa?
- ☐ O. Bidaiarako premiazkoa dugun guztiaz -arropa, tresnak...- ondo hornitzea.
 - ☐ O. Bisitatuko dugun lekuari buruzko informazio egokia lortzea: kultura, historia, hizkuntza, ingurumena...
 - ☐ O. Internetera edo agentzia batera jo eta nahi dugun ostatu eta garraio mota aurkitzea.

Oporraldi ekologikoagoak : 5 galdera gehiago

1. Mallorkako Calvia herrian, neurri bitxi bat abiarazi dute kostaldea berreskuratu eta hobetzeko. Zein?
 - ☐ Uretako motoen erabilera debekatu dute.
 - ☐ Hondartza inguruko 30 hotel bota dituzte.
 - ☐ Udaltzaingoek isunak jartzen dizkiete hondartzan jaten edo edaten dutenei, zaborra sortzen dutela-eta.
2. Turismoa Antartidaraino ere iritsi da, eta, 2003. urtean, 20.000 bisitari izan zituen. Zenbat ordaintzen ote dute, gutxi gorabehera, astebeteko egonaldia?
 - ☐ 6.000 euro.
 - ☐ 2.000 euro.
 - ☐ 10.000 euro.
3. Zer da "Lehendabizi" proiektua?
 - ☐ Opor ekologikoagoak egiteko aholkularitza zerbitzua.
 - ☐ Igeldoko jolas-parkea berritzeko proiektua.
 - ☐ Gipuzkoan bidegorri sarea egiteko proiektua.
4. Urtero, milioi bat bisitari inguru izaten dituzte Parke Nazionalak. Horietako batean, 2005eko udan, autoen zirkulazioa debekatzea erabaki dute. Ba al dakizu non?
 - ☐ Ordesan (Huesca).
 - ☐ Doñanan (Andaluzia).
 - ☐ Covadongako lakuetan (Asturias).
5. Galapago uharteak ekoturismogune ospetsuak dira. Darwinek han egin zituen ikerketa lanak. Ba ote dakizu non dauden?
 - ☐ Filipinetan.
 - ☐ Ekuadorren.
 - ☐ Txilen.